

Mizpirak udazkena itulan



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Galtzen beheko barrena belaunetik txorkatila-eraztuna estaltzera eramane duen eguraldia etorri denetik kanpotik etxerako etorria ugaritu da. Galtza motzen sasoian etxetik kanporako joana gustukoagoa zen. Orain ere nik kanporako norabidea nahiago, baina uztak behartzen du barrurako bidea. Barrura zer ekarriak mugitzen gaitu, aro baita.

Gurera mizpirak ekartzen du itulan udazkena. Egoskor samarra da mizpiraren fruitua, *Mespilus germanica*. Ez du lurreratu nahi izaten mizpirondoak hostoak erantzi arte. Orduan bakarrak dira arbolaren adarjean, zeru urdinduen argi kontratan deigarri. Mizpira koxkorra nabarmentzen saiatzen bada ere ez dira, ez, berehalakoan, eskinosoa eta zozoa berari mokoka hasiko. Zer da mikatza erabat heldu gabeko mizpira! Heldutasuna muturrera eramane eta usteldu gabe umotzeko bi entzima hartzigarri ditu. Hotzaldi batek jotzen badu, entzimak suspertu eta mizpiraren mamia biguntzeko eta gozatzeko bidean jarriko dute. Gain-umotasunak hasia behar du jan ahal izateko. Orduan garatzen du

azukre gozoa mamian; saka-rosarik ez, baina glukosa eta fruktosa lepo. Sagarrak edo piku lehorrak edo bananak baino azukre gehiago du mizpirak. Orduan bai, orduan hegazti edo gasteropodo, denen gustuko da. Gasteropodo, bai, izan ere haizeteren batek adar harrotik jaulki eta lurrerarazten baditu, bare eta barraskiloek zuzen asko hartuko dute ustel punttua dutenenganako herrestabidea. Berde direnak geroxeagorako geratuko dira. Horiek jan ez ditzen, etxeratu badituzu, fruituak lehor eta zakar, ez zikoizteko hotzaldi bat eman. Egun bat edo bi izozkailura, gero bertan gozo.

Gu ere animalia izan eta sena erabat alferrik galdu gabea... Eta mizpirak gain-umotasunean ahosabaia betetzen.



Mizpirak (Mespilus germanica)
lurrean usteltzen.

Jende gehienak, ordea, ez du mizpira ezagutzen, eta “ustelgintzaren” laudorioak entzunda, batek baino gehiagok goragalearen imintzioa egin izan dit. Ipularreko fruitua da mizpira, baztertua dugu. Mizpira aipatu eta jendeari erabat desberdina den beste fruitu bat dator- kio burura, mizpira japoniarra deitzen dena, *Eriobotrya japonica*. Saltokietan ikusten dutena... Baina hori beste sagar- doteigiko upela da. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. baratzea txomin-belarrak irentsia daukat, hamaika aldiz jarri naiz balde batera landare honek sortzen dituen bulboak botatzen baina alferrik. Landare altuei arazo handirik ez die sortzen baina barazki baxuenei ez die hazten uzten. Zer egin nezake?

Asier Alcedo (Ortuella)

Kaixo Asier. Txomin-belarra, Lekeitio-belarra, Bermeo-belarra, barbas-belarra, barrabasa, potox-belarra, potro-belarra... Zenbat izen ote ditu



JOHN TANN-CC BY

belar honek? Denak belar txarra edo gogaikarria dela adierazten dutenak. Izen zientifikoa *Oxalis latifolia* du. Oso zaila da baratzetik kentzea, erabat kentzea ezinezkoa dela esango

nuke. Herbizida kimikoak erabilita lurra erabat kutsatuko duzu eta denbora luzez bertan sortutako ezer ezin jan. Rotabatorra da bere lagun handiena, aipatzen dituzun lurpeko erraboiltxoak ebaki eta zabaltzen ditu. Nik uste dut barbasarekin ezikusiarena egin behar dela eta ugari dagoen tokietan landare altuagoak izango direnak jarri eta tikiak jartzeko edo haziak egiteko lur garbia erabili.

Txomin-belarra (Oxalis latifolia).